

**I EUSKAL HERRIKO ESKU  
LANGINTZAREN AZOKA**

**KATALOGOA**

**EREINTZA** *elkartea*  
*Errenteria*



**CATALOGO**

**I FERIA DE ARTESANIA DEL PAIS VASCO**

## AURKEZPENA

Errenteriako Ereintza Elkartearen ekintza kulturalak hurbiletik jarraitzeko aukera izandu dut, etnografiko arloaren lanetan erdiratuak kasu honetan; eta atseginez beterik aurkitu naiz, asmoak errealtatea bihurtzeko orduan, beharrezko diren lanen antolaketan erakutsitako funtsarengatik. Eta hau ez da noski, egunero ikusten den gauza. Zoritxarrez askotan, ekintzaren berezko zailtasunak gainditu ez baina alboratu egiten bai dira, lan merkean eroriaz. Azaleko gauzetatik ordea gutxi geratzen da, askar lekutatzen bai dira bere ondorioak. Lanaren fruituak jaso nahi badira, tajuz erein behar da; eta hau honela gerta dedin, aurretik funtsaz gertutu beharko da landu nahi den lan arloa.

1979 urtean Ereintza Elkarateak, aurrera eramandako I Euskal Herriko Esku Langintza Azokaren antolaketa onak, baieztu egiten du lehen aipaturiko arrazoiak. Izan ere artisau esberdinen hautaketa eta bere lanaren ondorengo eraketa eta aurkezpena, gure Herrian itsatsirik dagoen etnografiaren benetako erakusgarri bat izandu zen. Etxeko sutegiaren errementaria eta kaikugilea, buztinlaria eta irulea, uztarriaren lantzea eta kutxaren zizel-lanak, beste zenbait lanbide eta esku-langintzen artean, ekonomiko egitura esberdinen adierazgarri jatorrak bezala oroituko ditut.

Orain, hango agerpen bizi hura liburu egiten da. Erakusketa grafiko honek, bere adierazpen textoak eta artisauen giza-aipamenarekin, bilduma edo katalogo baten muga hotzak gainditzen ditu, didaktiko arloaren barnean sartuaz. Eta hau noski, gure Herriaren altxor kulturala aberasten duen ekintza interesgarri bat da oso.

JUAN GARMENDIA LARRAÑAGA

*Juan Garmendia L.*

## PRESENTACION

Desde que sigo de cerca la actividad cultural de "Ereintza Elkaratea", de Rentería, centrada en este caso en acusada inquietud etnográfica, me he visto agradablemente sorprendido por la escrupulosidad puesta bien de manifiesto al llevar al terreno práctico su empeño programado. Que esto no resulta fácil, no hay duda. Con harta frecuencia se sorteja la dificultad y se sigue el camino cómodo, que incide en la improvisación ligera. Pero de lo superficial poco o nada queda, se aventaja pronto. Es preciso sembrar con método para, después, recoger el fruto; más condición previa a esto es la preparación y el cuidado debidos de la parcela a trabajar.

La I Feria de Artesanía del País Vasco, llevada a cabo por "Ereintza Elkaratea" el año 1979, corrobora con su saber hacer los extremos apuntados. La selección de los diferentes artesanos y la ulterior presentación y proceso de trabajo fueron un acierto, desde el punto de vista de la etnografía enraizada en nuestro País. Recordaré al herrero de la fragua casera y al "kaikugile", al alfarero y a la hilandera, al labrado del yugo y a la talla de la "kutxa", entre otros varios oficios y quehaceres manuales que responden a la economía de distinta naturaleza.

Ahora, aquella demostración viviente se plasma en letra impresa. Esta exposición gráfica y su correspondiente texto explicativo, junto a la referencia humana del artesano, escapan del corto y quizás algo frío enunciado de catálogo y se adentran en el campo didáctico. Y esta es una labor muy interesante, que enriquece el acervo cultural de nuestro Pueblo.

JUAN GARMENDIA LARRAÑAGA

*Juan Garmendia L.*

## BURDINLANTZEA

Behe Erdi-Aroa ezkerotik dakigu errementariaren izatea eta lanaren berri, gure herrietako bizitzan. Burnigintzak berebiziko garrantzia izandu du Euskal Herriko iragan ekonomikoan.

Lehengo ola zaharrak lekutu dira, eta gure herri txikienetan ere zutik zeuden suteziek bide berdina daramate. Eskuz eragindako auspo haundiko sutegi haietako lanak, gehienbat nekazaria zen giro eta beharretara egokitzen ziren.



## FORJA

Desde la Baja Edad Media sabemos de la concreta presencia del herrero dentro de la vida de nuestras comunidades. La elaboración del hierro ha sido de importancia capital en nuestro pasado económico. Desaparecieron las ferrerías y el mismo camino llevan las herrerías caseras, que figuraban en casi todos nuestros pueblos, aún en los más pequeños. La forja de aquellas fraguas de abultado fuelle accionado a mano respondía a las necesidades de su medio, rural en gran parte.

Artisaua: FRANCISCO MARTIN AYESTARAN

Jaioteguna: 1929, Irailak 8, Hondarribia

Bizilekua: ELGORRIAGA (Nafarroa)

Teléf.: 59 42 35

Beste zenbait zehaztasun:

30 urterekin hasten da langintza honetan Elgorriagara bizitzera aldatzearekin batera. Ordu ezkerotik hau da bere ogibidea. Berekin batera bere emazte M.<sup>a</sup> Teresa Ibarra Mariezkurrenak lana egiten du.



Artesano: FRANCISCO MARTIN AYESTARAN

Fecha de nacimiento: 8 de Septiembre de 1929 en Fuenterrabía

Domicilio: ELGORRIAGA (Navarra)

Teléf.: 59 42 35

Otros datos:

Comienza a trabajar en esta especialidad a los 30 años coincidiendo con su cambio de domicilio a Elgorriaga. Desde entonces esta actividad constituye su forma de vida. Junto con él trabaja su mujer, M.<sup>a</sup> Teresa Ibarra Mariezcurrena.

## UZTARRIA

Idi uztarrria (bikoa) behientzakoa baino zerbait haundixeagoa izaten da. Lau adar-zulo ditu, lau adar-koska eta buru-leku bi. Zenbaitetan uztarrriak aurrekaldetik oso zizel-lan politez apaintzen dira: lorez, hostoz, gurutzez, abere-buru estilizatuaz eta antzekoak. Zizel-lan hauetan dager noski euskal uztarriaren berezitasunik aipagarrienetato bat.



## YUGO

El yugo para los bueyes (doble) es algo mayor que el de las vacas. Tiene cuatro corniles, otros tantos muñones ó pestañas y dos game-las. La cara exterior del yugo puede ir con tallas de diferentes motivos (flores, hojas, etc.) así como incisiones de cruces y cabezas de buey estilizadas. En estas tallas tenemos una de las características más interesantes del yugo vasco.

Artisaua: PABLO LASA ARTOLA

Jaioteguna: 1914, Apirilak 30

Bizilekua: Liceaga Kalea, 16-3.º D - HERNANI (Guipúzcoa)

Telef.: 55 25 69

Beste zenbait zehaztasun:

22 urterekin lanbide hau ikasten hasten da, Asteasuko (Gipuzkoa) Iturralde etxeko Ignacio Iraolaren eskuz. Aurrerantzean eta gaur arte lan-gintza hau bere eguneroko ogibidea da.



Artesano: PABLO LASA ARTOLA

Fecha de nacimiento: 30 de Abril de 1914

Domicilio: Calle Liceaga, 16-3.º D - HERNANI (Guipúzcoa)

Teléf.: 55 25 69

Otros datos:

A los 22 años comienza el aprendizaje del oficio de manos de Ignacio Iraola, de la casa Iturralde de Asteasu (Guipúzcoa). Desde entonces y hasta la fecha esta labor constituye su quehacer diario.

## UZTAIA

Abelgorri eta zaldi eta behorentzat erabiltzen den uztaia, haritza edo lizarrakoa da gehienetan. Bere egintzaren teknika xumea aldakorra da oso, artisau batetik bestera; izan ere zenbaitek uztaiaaren arraultz-antzeko itxura, zumitza belanaren kontra okerturik lortzen bai dute. Ia zentimetro bateko lodiera duen zumitza honek, bi koskak ditu: bat, azkeneko lotura-ren indargarri bezala erabilia, eta besteak zintzarria behar bezala eusten laguntzen duena. Zulo batzuen bitartez burdinhariz josten da, eta gabila batez itxi. Zintzarriari larruzko pusketa bat josten zaio; honen bidez uztaia eta zintzarria bera kontu eta iraun arazten dira.



## COLLAR

El collar para el ganado vacuno y caballar es de madera de roble ó fresno, generalmente. La técnica de su modesta confección varía de un artesano a otro; más, muchos de ellos consiguen la forma aovada del collar doblando sobre la rodilla la tira de madera, de un centímetro aproximado de grosor. Este fleje cuenta con dos pestañas: una sirve de refuerzo para el ulterior empalme y la otra ayuda a mantener el cencerro en la posición debida. A través de unos orificios, el cosido es de alambre y un tirafondo puede hacer de llave. En contacto con el cencerro lleva un cosido de cuero, que prolonga la duración del collar y la conservación del cencerro.

Artisaua: **JULIO IRIGOIEN GALARZA**

Jaioteguna: 1921, Abuztua 19, Urdiain

Bizilekua: Solana Kalea, 70 - **ALTSASU** (Nafarroa)

Beste zenbait zehaztasun:

Lan bera egiten zuen bere aitari lagunduaz eta ikasiaz, 15 urterekin hasi zen esku-langintza mota honetan.



Artesano: **JULIO IRIGOIEN GALARZA**

Fecha de nacimiento: 19 de Agosto de 1921 (Urdiain)

Domicilio: Calle Solana, 70 - **ALSASUA** (Navarra)

Otros datos:

La práctica de esta especialidad artesanal la inició a los 15 años ayudando y aprendiendo de su padre, el cual realizaba este mismo trabajo.

**KAIKUA**

Zati bakarreko zurezko ontzi hau, urkizkoa da gehienetan. Bere tan-  
kera ttutturru edo kono motz baten duzu, ahoaldea oina baino zerbait  
zabalagoa. Kanpokaldetik aho erdiraino sartzen den kider bat darama,  
behatz-txikirentzat zuloduna. Kaikuaren sargunea litro batena edo hogeitik  
gorakoa izan daiteke.

Ardi-jezteko, esnea bil-  
tzeko, erabili izan ohi da  
maizenik.

**KAIKU**

Recipiente de una pie-  
za, generalmente de abedul.  
Su línea es un tronco de co-  
no oblicuo siendo el diáme-  
tro de la base algo menos  
que el de su boca. En su  
parte exterior lleva un asi-  
dero, con un orificio para el dedo meñique, que llega hasta el centro del  
recipiente. La capacidad del "kaiku" puede ser de un litro como pasar de  
los veinte. Su uso más corriente ha sido para ordeñar ovejas.

Artisaua: FRANCISCO LARRET XEA BERE AU  
Jaioteguna: 1920, Urriak 13, Arantza (Nafarroa)  
Bizilekua: Eskarnea Etxea - SUNBILLA (Nafarroa)  
Telef.: 59 41 97

Beste zenbait zehaztasun:

Naiz eta esku-langintza ez izan bere gaurko ogibidea, 8 urte ezkeroz-  
tik ikasia du lan mota hau bere aitaren bidez.




Artesano: FRANCISCO LARRECHEA BERE AU  
Fecha de nacimiento: 13 de Octubre de 1920, Aranaz (Navarra)  
Domicilio: Casa Eskarnea - SUMBILLA (Navarra)  
Teléf.: 59 41 97

Otros datos:

Aunque la artesanía no constituye su modo de vida, desde los 8 años  
conoce esta especialidad artesanal aprendiendo de su padre.

**MALATXA**

*Gazta egiteko lanen artean, artzaiak esnea mamitzen denean "malatxa" deritzan irabiagailuarekin nahasten du. Lehen, aspaldi eztzala, malatxa hau zurezkoa zen; orain ordea metalezkoa erabiltzen da.*

**MALATXA**

Dentro del proceso de elaboración del queso, el pastor debe batir la leche convertida en cuajada. A tal efecto se sirve de un bastidor que recibe el nombre de "malatxa". La "malatxa" de nuestros días es metálica, pero la usada antiguamente y de este no hace muchos años, era toda ella de madera.

**Artisaua: KOLDO AZPIAZU GOÑI**

**Jaioteguna: 1946, Otsailak 1**

**Bizilekua: Kardaberaz Kalea, 2-2.º - HERNANI (Gipuzkoa)**

**Telef.: 55 27 20**

**Beste zenbait zehaztasun:**

*14 urte arte buztin lanetan trebetzen da. Ondoren eta zenbait mai-xuen gidaritzapean (Moeschel, Pablo Lasa, I. Salinas, Manolo Moreno, Capa, Jorge de Oteiza t.b.) zura, harria eta galda-lanen jakintza eta erak ikasten ditu.*

*Azoka honetara malatxarekin etorri bada ere, eskultura da bere eguneroko lana.*



**Artesano: KOLDO AZPIAZU GOÑI**

**Fecha de nacimiento: 1 de Febrero de 1946**

**Domicilio: Calle Cardaberaz, 2-2.º - HERNANI (Guipúzcoa)**

**Teléf.: 55 27 20**

**Otros datos:**

*Hasta los 14 años realiza trabajos y practica con arzilla. A partir de esta fecha estudia en el conocimiento y formas de trabajo en la madera, piedra y fundición bajo el asesoramiento de sus maestros Moeschel, Pablo Lasa, I. Salinas, Manolo Moreno, Capa, Jorge de Oteiza, etc.*

*Aunque a la presente Feria ha venido trabajando la malatxa, su actividad habitual es la Escultura.*

## EGUR-LANTZEA

Euskal Herriko lurralde askoren baso aberastasunak, egur-lantzearen lanbide ugaria ekarri ohi du. Erlijioso eta hiri eraiketatik hasita, artzaia-  
ren zalia, zenbait errediza mota eta uztarriaren zizel-lanetaraino, gure ar-  
tisauen trebetasuna eta lan-maila ona maiz frogatu da.

Esan beharra dago ordea, gure artean ain ugari egin den marrazki  
geometrikoen egur-lantzea, ez dela gurea soilik; izan ere XV-garren men-  
dearen erdi-aldetik aurrera izango da, euskal erredizak bere tankera eta  
pertsonez berezia hartzen duen garaia.



## TALLA DE MADERA

La antañoa riqueza maderera de amplias zonas del País Vasco ha  
traído consigo la vasta dedicación al menester de la talla. Desde la cons-  
trucción de tipo religioso y civil, hasta la cuchara del pastor, pasando por  
los diversos muebles y el yugo cornal, nuestro artesano ha dado paladinas  
muestras de buen gusto artístico.

Pero conviene señalar que la talla a base de dibujos geométricos, que  
tanto hemos prodigado, no es exclusiva nuestra, y que será a partir de  
mediados del siglo XV cuando el mueble vasco se presenta con caracterís-  
ticas propias y peculiares.

Artisaua: RICARDO ETXEBERRIA ZUBELDIA

Jaioteguna: 1943, Urtarrilak 23

Bizilekua: Aranguren Baserria ABALTZIZKETA (Gipuzkoa)

Beste zenbait zehaztasun:

Bere kabuz, maixurik gabe, hasten da egurra lantzen 14 urterekin.  
Gaur egun bere lanen merkatal salmentatik bizi da.



Artesano: RICARDO ECHEVERRIA ZUBELDIA

Fecha de nacimiento: 23 de Enero de 1943

Domicilio: Caserío Aranguren - ABALCISQUETA (Guipúzcoa)

Otros datos:

Autodidacta, comienza a trabajar la madera a los 14 años, viviendo  
actualmente de la venta comercial de sus productos.



## EZPEL ZALIA

Beste zenbait esku-langintza gauzei bezala gertatzen ari zaio tamalez ezipelzaligintzari ere; jendeak gero eta arreta gutxiago honelako bitxiei. Gurko industriagintzak bere produzioa sailean botatzeak, eta metalezko mahi-tresnen erabilera ugaria lehengo zaligile zaharrak ia zeharo eskutazazi ditu gure artetik.

Ezpel-zuraz hornitzeko, zaligileak egokien datorkion basora joko du. Normalean arrabeteko neurria erabiltzen da langintza honetan.



## CUCHARA DE BOJ

Como ocurre con otros muchos quehaceres de Artesanía, la confección de la cuchara de boj tiene cada vez menos importancia. La Industrialización con su producción en serie, de este trabajo manual, y el empleo muy extendido del cubierto de metal, hacen que el cucharero vaya desapareciendo de los pueblos.

Para aprovisionarse de la madera de boj, el cucharero acudirá al bosque que más a mano le resulte. En el palmo tiene la medida empleada ordinariamente en el oficio.

Artisaua: **MARCOS SARAGETA ZUBIRI**

Jaioteguna: 1909, Apirilak 23

Bizilekua: San Cristóbal Kalea - MEZKIRITZ (Nafarroa)

Beste zenbait zehaztasun:

9 urterekin bere aita eta aitonaaren ondoan hasten da esku-langintza mota honetan.

15 urtetatik aurrera lan honetatik bizi da; zaliak bere bakantze-aldian bakarrik lantzen ditu eta ondoren Geronara bidali, han bukatuak izan daitezzen.

Bestalde abel-hazkuntzan ere lan egiten du.



Artesano: **MARCOS SARAGÜETA ZUBIRI**

Fecha de nacimiento: 23 de Abril de 1909

Domicilio: Calle San Cristóbal - MEZQUIRIZ (Navarra)

Otros datos:

A los 9 años inicia la práctica de esta especialidad artesanal conjuntamente con su padre y su abuelo.


Desde los 15 años vive de este trabajo, realizando sólo las cucharas en su fase de desbaste, las cuales las envía a Gerona, donde las terminan.

Compagina este trabajo con la labor ganadera.

## GAZTAIN ZUMITZEZKO OTARGINTZA

*Ur-putzoa, labea, lan-aulkia, moldeak, matxeta, labaina, eztena, bi kiderreko azea eta zurezko mazoa dira otargintzan erabiltzen diren tresnak.*

*Beste zenbait moten artean hauek dituzu otar-mota ezagunenak: "kuebano otarra" mahats-bilketan erabilia; "kopa-saskia" edo "kopa-otarra", eta "lepa-saskia" edo "lepa-otarra" arto, sagar eta antzekoak jasotzeko erabiltzen dena.*



## CESTERIA DE FLEJES DE CASTAÑO

Los elementos más comúnmente utilizados en esta especialidad son: el depósito de agua, el horno, el banco, los moldes, mâchette, cuchillo, punzón, cuchilla de dos mangos y la maza de madera.

Son muchos los modelos de cestos que se hacen. Citemos al "kuebano-otarra", usado en la vendimia; "kopa-saskia" ó "kopa-otarra", "lepa-saskia" ó "lepa-otarra", entre otros.

**Artisaua: AGUSTIN ANT XOR DOKI IRIGOIEN**

**Jaioteguna: 1914, Abuztuak 17**

**Bizilekua: Olaetxeberria Baserria - IGANTZIKO BENTAK (Nafarroa)**

**Telef.: 63 79 58**

**Beste zenbait zehaztasun:**

*10 urterekin hasten da, aitaren eskuz, esku-langintza mota honetan ikasten eta trebetzen. Gaur egun lan honetatik bizi da, Iruñea eta Dantzarinan otarrak saltzen dituelarik.*



**Artesano: AGUSTIN ANT XOR DOKI IRIGOIEN**

**Fecha de nacimiento: 17 de Agosto de 1914**

**Domicilio: Caserío Olaetxeberria - VENTAS DE YANCI (Navarra)**

**Teléf.: 63 79 58**

**Otros datos:**

Desde los 10 años aprendió y practicó esta especialidad, aprendiendo de su padre que también era cesterero. En la actualidad vive de este trabajo, vendiendo sus productos a Pamplona y Dantzarina.

## ZUME-ESKULANAK

*Jatorriz gehienetan Hon-Kong-koa den zumeaz, aurretik behar bezala gerturik, zenbait errediza mota egin ohi dira. Horien artean aipagarrienak hauek dituzu: besaulki arruntak eta baita erientzat bereziki egindakoak ere, eserlekuak, etzaulkiak, mahiak, oa-sare edo hamakak eta aulkiak.*



## ARTESANIA DERIVADA DEL JUNCO

Con el junco, cuyo lugar de origen más corriente es Hon-Kong, después de su necesario y previo proceso de preparado, se confeccionan diferentes muebles, de los cuales citaremos los sillones corrientes, sillones para enfermos, sillas, sofás, mesas, hamacas y banquetas.

**Artisaua: PEDRO MARI GALPARSORO ARIZTIMUÑO**

**Jaioteguna: 1924, Uztailak 1**

**Bizilekua: Larrizabal, 13 - SEGURA (Gipuzkoa)**

**Telef.: 80 13 14**

**Beste zenbait zehaztasun:**

*Lan bera egiten zuen aitaren ondoan hasten da esku-langintza mota honetan 13 urterekin. 1977 urtean eta salmenta gehiegi urritzearen ondorioz, lana uztea behartua ikusten da, baso-ertzaina bezala lana egiteko.*

*Erabiltzen duen zumea Hon-Kong-etik ekartzen du.*



**Artesano: PEDRO MARI GALPARSORO ARIZTIMUÑO**

**Fecha de nacimiento: 1 de Julio de 1924**

**Domicilio: Larrizabal, 13 - SEGURA (Guipúzcoa)**

**Teléf.: 80 13 14**

**Otros datos:**

A los 13 años empieza el aprendizaje de esta especialidad de las manos de su padre que también ejercía esta labor. El año 1977 y debido a la poca venta de este producto, tiene que abandonar y dedicarse a guarda forestal.

**El junco que utilizan lo traen de Hon-Kong.**

## BUZTINGINTZA

*Buztingintzaren teknika Neolitikos garaira garamazki. Buztina moldatze lanak, orduraino nekez lortu zitekean moduko ontziteria jarri zuen gizonaren eskuetan. Buztinlariak tornu bidez egiten du buztin-moldaketa, eta eskuekin ontziaren gogozko zaion neurri eta tankera ematen. Ontzia lehortu ondoren laberatu egingo du, berorren egozketaz lan guztia bukatzen duelarik.*



## ALFARERIA

La técnica de la Alfarería nos lleva al Neolítico. El modelado del barro puso a disposición del hombre recipientes de traza hasta entonces difícil de conseguir.

El alfarero modela en el torno la arcilla con las manos y consigue la línea y tamaño de la vasija deseada. El recipiente, ya seco, pasa al horno, donde es sometido a la operación de cocción.

*Artisaua: GREGORIO ARAMENDI ARREGI*

*Jaioteguna: 1922, Martxoak 12*

*Bizilekua: Intxausti Etxea - ZEGAMA (Gipuzkoa)*

*Telef.: 80 10 75*

*Beste zenbait zehaztasun:*

*Buztingintzan aspalditik aritzen zen artisau sendi batean jaioa da; izan ere bere etxea orain dela 146 urte buztin-ola bat zen. Langintza honen pausoak gazte zelarik ikasi zituen, bere etxeko mutilen lanak ikusiaz; eta ondoren Valladolid-etik orain dela 29 urte bere etxera etorritako buztinlari bidez teknika oheagotu zuen. Ekonomiko errentagarritasun ezaz langintza hau uztea behartua aurkitu zen, egun beraren irakaskintza ogibide bezala harturik.*



*Artisano: GREGORIO ARAMENDI ARREGI*

*Fecha de nacimiento: 12 de Marzo de 1922*

*Domicilio: Casa Inchausti - CEGAMA (Guipúzcoa)*

*Teléf.: 80 10 75*

*Otros datos:*

*Pertenece a una familia de larga tradición alfarera; de hecho su casa era una alfarería hace ya 146 años. Aprendió la primera técnica del oficio desde joven, viendo trabajar a los oficiales de su casa, perfeccionándola con los alfareros que procedentes de Valladolid vinieron a su casa hace 29 años. Motivado por la falta de rentabilidad económica de esta actividad, tuvo que abandonarla, dedicándose en la actualidad a la enseñanza de la misma.*

**KERAMIKA****Artisaua: KOLDO MERINO NAZABAL****Jioteguna: 1952, Azaroak 20****Bizilekua: Iturkale, 2-4.º - DEBA (Gipuzkoa)****Telef.: 60 10 39****Beste zenbait zehaztasun:**


1972 urtean, Jorge de Oteizak zuzentzen duen Debako Arte Eskolan, hasten da lan hau ikasten. Ordu ezkeroztik honetaz bizi da. Egur-lantzea eta zenbait eskultura mota ere egiten ditu.

**CERAMICA****Artesano: KOLDO MERINO NAZABAL****Fecha de nacimiento: 20 de Noviembre de 1952****Domicilio: Calle Iturkale, 2-4.º - DEVA (Guipúzcoa)****Teléf.: 60 10 39****Otros datos:**

Comienza su aprendizaje en 1972, en la Escuela de Arte de Deva, dirigida por Jorge de Oteiza. Desde esta fecha vive de la venta de sus productos de cerámica, aunque también trabaja la talla de madera y la escultura en diversos materiales.

**KERAMICA****Artisaua: JUAN BELASTEGI DURAÑONA****Jaioteguna: 1952, Ekainak 28****Bizilekua: Kordeleria Kalea, 2-2.º D - DEBA (Gipuzkoa)****Beste zenbait zehaztasun:**

1974 urtean buztzingintzaren mundua ezagutzen du Madriden, José Andrés Coello erakutsien bitartez. Gaur egun bere keramika lanen salmentaz bizi da. Marrazkitza ere lantzen du.

**CERAMICA****Artesano: JUAN BELASTEGI DURAÑONA****Fecha de nacimiento: 28 de Junio de 1952****Domicilio: Calle Cordelería, 2-2.º D - DEVA (Guipúzcoa)****Otros datos:**

En 1974 toma contacto con el mundo de la Alfarería en Madrid, siendo José Andrés Coello quien lo instruye en esta labor. Actualmente vive de la venta de sus productos dedicándose también al dibujo.

**ESPARTZINA**

*Espartzingintza arras mekanizatua dago. Hala eta guztiz aurki ditzazkegu oraindik zenbait artisau, aulki etzanantxean eta eztena eskuan, bere lanari lotuak.*

*Iuteko zorua gertutzea izan ohi da espartzingilearen lehenengo lana; zoru horri oihala ezarriko dio, barru eta kanpotik jostia, eta azkenik zinta jarriko.*

**ALPARGATA**

Aunque la confección de la alpargata se encuentra mecanizada, todavía hoy día encontramos artesanos que sobre un banco de plano inclinado y utilizando la lezna van realizando este producto.

La primera operación será preparar la suela de trenza de yute; a ésta suela se le acomoda tela cosida interior y exteriormente, colocándose por último la cinta.

**Artisaua: LEANDRO ETXEBESTE EZEIZA**

**Jaioteguna: 1916, Martxoak 16**

**Bizilekua: Kale Nagusia, 5-1.º ezk. - HONDARRIBIA (Gipuzkoa)**

**Telef.: 64 18 31**

**Beste zenbait zehaztasun:**

*12 urterekin bere aitaren maixutzapean hasirik eta gaur arte hau da bere ogibide bakarra. Aurtengo Azoka honetara M.<sup>a</sup> Teresa Oronoz andrearekin batera etorri zen; honek ere orain dela hamar urte hasita lan bera egiten bai du Hondarribian.*



**Artesano: LEANDRO ECHEVESTE ECEIZA**

**Fecha de nacimiento: 16 de Marzo de 1916**

**Domicilio: Calle Mayor, 5-1.º Izda. - FUENTERRABIA (Guipúzcoa)**

**Teléf.: 64 18 31**

**Otros datos:**

A los 12 años aprende el oficio a través de su padre, dedicándose totalmente a esta especialidad hasta el presente. En la presente Feria estuvo acompañado de M.<sup>a</sup> Teresa Oronoz, quien desde hace 10 años practica esta especialidad en la misma localidad de Fuenterrabía.

**ARDAZKETA**

Artzaiak, Maiatza, Ekaina eta Uztailak árdile-mozketari ematen dizkio.

Artilea behin garbitu eta lehortu ondoren kardatu egiten ohi du. Ondoren zurezko txirrika edo karrete batez baliaturik ardazketa lana hasten du.

**HILADO**

Durante los meses de Mayo, Junio y Julio, los pastores proceden a la esquila de la oveja.

La lana una vez limpia y seca, se carda. Después y haciendo uso de un carrete de madera, se procede a la operación de hilado.

Artisaua: **JUSTINA BRINGAS PORTILLO**

Jaioteguna: 1921, Azaroak 30

Bizilekua: Elregato, 52 - BARAKALDO (Bizkaia)

Beste zenbait zehaztasun:

32 urterekin hasten da esku-langintza mota hau ikasten, Barakaldo-ko Balentin eta Jesús Ayende anaien maixutzapean. Bere eguneroko lana abel-hazkuntza da.

Esku-langintzako Azoketara bere bi alaba Ana M.<sup>a</sup> eta Rosina Montalvan Bringas-ekin etortzen ohi da.



Artesano: **JUSTINA BRINGAS PORTILLO**

Fecha de nacimiento: 30 de Noviembre de 1921

Domicilio: Elregato, 52 - BARACALDO (Vizcaya)

Otros datos:

Comienza a los 32 años el aprendizaje de esta labor artesanal, siendo sus maestros Valentín y Jesús Ayende (Baracaldo). Su actividad diaria es la ganadería.

Normalmente acude a estas Ferias de Artesanía con sus dos hijas, Ana Mari y Rosina Montalvan Bringas.

## TALOA

"Taloa" deritzan arto-opila gure baserrietan, askotan ogiaren orde, ugari jan izandu da.

Taloa borobila da, eta bere lodiera zentimetro batena gutxi gora-bera. Bere egintzan arto-irina, ura eta gatza erabiltzen dira. Gai guzti hauekin, zabaldu: k borobil itxura ematen zaion ore mehe eta bildu bat lorzen da. Ondoren "talo burnia" deritzan tresnaren bidez suari ematen zala. Bi aldetatik erretzen da urre-kolorea lortu arte. Talo beroa esnearekin batera jaten da.



## TALOA

La torta de maiz llamada "taloa" ha sido de mucho consumo en el caserío, donde ha suplido en gran parte al pan.

La "taloa" es circular y su grosor aproximado es de un centímetro. En su elaboración se emplean la harina de maiz, el agua y la sal. Con estos componentes se consigue una masa fina y compacta, que extendida se le da forma circular. A continuación se expone al fuego por medio del útil que recibe el nombre de "talo-burnia". Se asa por ambos lados y adquiere un color dorado. La "taloa" se come caliente. Se toma principalmente con leche.

Artisaua: JOSE ANTONIO LOIARTE eta EULALIA ELIZALDE

Jaioteguna: 1904, Otsailak 27 eta 1905 Otsailak 3

Bizilekua: ZUBIETA (Nafarroa)

Beste zenbait zehaztasun:

Baseri lanetan aritzen dira normalean.



Artesano: JOSE ANTONIO LOIARTE y EULALIA ELIZALDE

Fecha de nacimiento: 27 de Febrero de 1904 y 3 de Febrero de 1905

Domicilio: ZUBIETA (Navarra)

Otros datos:

Su actividad principal está basada en la agricultura y ganadería.



## ESKU LANGINTZA ETA PLASTIKA LANAK - "MOZORRO TALDEA"

Azoka honetan mota honetako lanak aurkeztu duen talde honek, Erretereriako Orereta Ikastolan egiten diren plastika lanen ondorio bat bezala sortzen da. Zenbait erakusketetan parte hartu izan ohi du: Zegama, Bizkaian, t.b.



Beraiekin hartu-emanetan jarri nahi duenarentzat, hona telefonoak

35 63 79

51 03 30

### ARTESANIA Y ARTES PLASTICAS. "MOZORRO TALDEA"

Este grupo que ha participado en la presente Feria con esta especialidad, surge como desarrollo de la elaboración de trabajos de

plástica en la Ikastola Orereta de Rentería. Ha participado también en diversas exposiciones: Cegama, Vizcaya, etc.

Para los interesados en conectar con el citado grupo, llamar a los siguientes teléfonos: 35 63 79 y 51 03 30

## AURKIBIDEA - INDICE

	Orriak	Páginas
HITZAURREA .....	1	PROLOGO
AURKEZPENA.....	2-3	PRESENTACION
BURDINLANTZEA .....	4-5	FORJA
UZTARRIA .....	6-7	YUGO
UZTAIA .....	8-9	COLLAR
KAIKUA.....	10-11	KAIKU
MALATXA.....	12-13	MALATXA
EGUR LANTZEA.....	14-15	TALLA DE MADERA
EZPEL ZALIA.....	16-17	CUCHARA DE BOJ
GAZTAIN ZUMITZEZKO OTARGINTZA .....	18-19	CESTERIA DE FLEJES DE CASTAÑO
ZUME ESKULANAK .....	20-21	ARTESANIA DERIVADA DEL JUNCO
BUZTINGINTZA .....	22-23	ALFARERIA
KERAMIKA.....	24-25	CERAMICA
ESPARTZINA.....	26-27	ALPARGATA
ARDAZKETA .....	28-29	HILADO
TALOA.....	30-31	TALO
ESKU LANGINTZA ETA PLASTIKA LANAK .....	32	ARTESANIA Y ARTES PLASTICAS

